

KONTROL MOZIOA

Intxaurrondon mikrobus-linea bat jartzeko proposamenari buruzkoa

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2019ko uztailaren 15ean Gune Publikoetako Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Apirilaren hasieran, Intxaurrondo Zaharreko Bizilagun Elkarteak (IZBE) Intxaurrondon barne mikrobus-linea bat jartzeko proposamena egin zion Donostiako Udalari. Horren ondoren, proposamena babesteko sinadura bilketa bat egin zuen, eta 2.196 auzotarrek babestu zuten auzo elkartearen eskaera. Maiatzaren 8an sinadurak eta proposamena erregistratu zituzten. Horrekin batera, Udaleko arduradunekin eta teknikariek biltzeko prestutasuna agertu zuten.

Horrez gain, eta erantzunik jasotzen ez zutenek, ekainaren 24an Intxaurrondo Zaharreko Bizilagun Elkarteak (IZBE) bai Eneko Goia alkate jaunarekin, bai Mugikortasuneko eta Garraioko zinegotzi ordezkari Pilar Arana Perez andrearekin bilera egiteko eskabidea egin zuen. Oraingoan, berriro ere, maiatzean bezala bizilagunek ez zuten Udal Gobernuaren partetik inongo berririk izan.

Intxaurrondoko bizilagunek aspaldi egiten duten eskaera da hau. Egun, Intxaurrondo zeharkatzen duten autobus-lineek (8, 29, 31 eta 33, esate baterako) ez dute auzoko oinarrizko zerbitzuetara iristeko aukerarik ematen, garraio publiko bidez hainbat gunek ez baitute haien arteko lotura bermatzen. Anbulatoriora, kultur etxeetara, kiroldegira, gizarte zerbitzuetara edo farmaziara joateko zailtasunak dituzte Intxaurrondoko bizilagunek.

Hori horrela, ez dugu ulertzen maiatzetik hona zergatik Mugikortasuneko eta Garraioko zinegotzi ordezkari Pilar Arana Perez andreak ez dion bizilagunen eskaerari erantzun eta ez duen 2.196 bizilagunen proposamena kontuan hartu. Gune Publikoetako Batzordean Aranak ez zuen gai hau bideratzeko konpromiso sendorik agertu.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, Intxaurrondoko bizilagunek eskatu bezala, bilera ireki bat egin dezala auzoko bizilagun, eragile, elkarte, Udaleko teknikari eta udal taldeekin batera, bizilagunen beharrak entzun eta proposamena aztertzeko.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

- Donostiako Udaltzarak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari barne-mikrobusaren inguruan egin den proposamen eta aurrelan guztia kontuan hartu eta, Donostiako Tranbia Konpainiarekin batera, linea honen bideragarritasuna azter dezala, Intxaurrendoko auzoaren mugikortasuna hobetze aldera.

Donostian, 2019ko uztailaren 18an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia